



Hiztegitxo


Hobeto irakurtzen laguntzeko




adats ile luzea	«...bere adats luzea gorantz orraztuta zeraman, eta gaur egun argitan ere politagoa zegoen.»	125
afalostean afaldu eta gero, afalondoan	« Afalostean eztabaida bat izan nuen Darry-rekin, aste hartan laugarrena edo izango zen.»	
ahapeka xuxurlatuaz, isilean	«Sodapop bere ondoan zegoen, ahapeka leun hitz egiten. Bi aldiz begitandu behar izan nuen Two-bit ikusi nuenean.»	141
aitzurtuta mozkortuta, horditurik	«Marcia-ren telefono-zenbakia. Segur aski ez zen benetakoa. Ez dakit non nuen burua eskatu diodanean. Aitzurtuta nengoela uste dut.»	50
alegia hots, hau da	«Horixe zen orduan bere beldur ezkutua, maite duen beste norbait galtzea, alegia .»	
amaraun aramu-sarea	«Eliza txikia zen, zaharra benetan, ikara ematen zuen eta amaraunez beterik zegoen.»	68
amesgaizto lokamutsa, amets txarra	«...aitaren eta amaren hileta izan zen eguneko gauean, amesgaiztoa izan nuen.»	109
amorru haserrea	«Haiek ikusteaz poztu nintzen, baina amorrua ere eman zidan, auzo zikin batean bizi garelako eta gure etxea ez delako miresteko modukoa.»	
aparta berezia	«...oraindik orbana daukat atzamar batean. Curly hiri erdiko Hood arrunta zen, gogorra eta ez oso aparta , baina gustokoa nuen.»	131
arerio aurkakoa, etsaia	«...ez zegoen areriotzat hartzeko talderik.»	16
arnasestu arnas gogorra	«Isiltasuna ere astunagoa egin zen. Hurbil neuzkan mutilen arnasestua entzuten nuen. Darry-k eta soc-ak zirkulu geldoak egiten jarraitzen zuten.»	139
arraio deabru (harridura adierazteko)	«—Nola arraio jakingo dut nik larri dagoen ala ez? (...) eta polizia bere kotxera itzultzearekin batera, Dally-k zera esan zion marmarka: pepelerdo.»	142
ataka kinka larria, estualdia	«Burua bueltaka ari zitzaidan. Beraz, bizkarra eskaileraren kontra jarri nuen eta begiak itxi nituen. Atzerapenez zetorkidan ataka bat izango zen.»	71
atsekabe disgustua	«...ezingo nuke —esan zuen lasai eta atsekabeturik .»	126
atzazal azazkala	«Benetan nengoen bezain ikaraturik ematen nuela suposatzen dut, epaileak irribarre egin eta atzazalak jateari uzteko esan baitzidan.»	
barre-argara barre zantzoa, karkara	«Edalontzi-hotsa, barre-argara zaratatsuak eta astunak, eta nesken barre txikiak, eta Hank Williams.»	61
barruak jan urduritasuna eragin, larritu	«Darry-k ez dauka ideiarik ere non zaudeten, eta horrek barruak jaten dizkio.»	83
bart joan den gauean	«Erdi konbentzituta nengoen, bart gertatutakoa ametsa zela.»	70
bate makila berezia, kirolerako	«Bizikleta-kateak, labanak, apurtutako botilak, hodi zatiak, beisboleko bateak , eta batzuetan pipak ere bai.»	136
begitandu irudikatu, imajinatu	«Sodapop bere ondoan zegoen, ahapeka leun hitz egiten. Bi aldiz begitandu behar izan nuen Two-bit ikusi nuenean.»	141
bekoki kopeta, aurpegiaren goialdea	«Lehen ilea zuen bekoki parean orain zuriago zeukan...»	74
bekozko aurpegi keinua, kopetiluna	«...bekain bat altxatu zuen eta bestearekin betozkoa jarri zuen.»	32
bibote ezpainaren goiko alde	«Geldi-geldi zegoen eta une batez larriturik zera pentsatu nuen: “Hilda dago, berandu iritsi gara”. Dally-k txistua irentsi eta biboteko izerdia lehortu zuen.»	144
bozgorailu altaboza	«Noski, horren ozenki hitz eginda, ez duzu bozgorailurik behar txo —esan zuen Soda-k, eta Darry-ren atzean jarrita, mihia atera zion.»	134
burko almohada	«...baina bat-batean arnasa moztu zitzaion, burkoa baino zuriagoa jarri zen eta konortea galdu zuen.»	120




dardara gorputz ikara edo mugimendua	«Banekien zuri-zuri nengoela, horrela sentitzen bainuen, eta dardara batean.»	13
deiadar egin oihu egin	«Buelta eman nuen, eta atea hartu eta alde egin nuen, ahal nuen bezain azkar. Darry-k deiadar egin zidan.»	54
egonezin artega egotea, desatsegin	«Oso gogokoak ditu baserriak. Hirietatik urruti egon nahi nuen, egonezinetik urruti.»	51
endredo nahastea	«...beraz, Soda eta ni, ahal den guztian, endredoetatik kanpo mantentzen saiatzen gara...»	9
epaiketa juizioa, auzia	« Epaiketa ez zen nik pentsatu nuen bezala gertatu.»	
ergel babalorea, kirtena, memeloa	«Nire bizitza osoan inori entzundako azalpenik ergelena zen.»	
erregutu mesedez eskatu, arrenka	«...biok erregutzen eta mesedez eskatzen aritu ginen, baina medikuak aurretik zer nahi genuen jakin ezan ez balu, ez genuen inola ere lortuko.»	117
erruki gupida	«Nahiago dut norbaiten gorrotoa izatea bere errukia izatea baino.»	
estropezu egin behaztopatu, tupust egin	«Korrika egiten saiatu nintzen, baina estropezu egiten nuen, eta Dally presa sartzeko bultzaka ari zitzaidan.»	141
estutu mehartu	«...eskiatzeko txamarraren uhalak estutu zituen.»	125
etsi-etsian resignatuta, esperantza gabe	«Dally kolpeka ari zitzaien eta nik han segitzen nuen zintzilik, etsi-etsian , beste soc hura bitartean, gelditu gabe ostikoka ari zitzaidan...»	140
galetsi hondoratua, hauts egin	«...lekuan geratu zen, eskuak poltsikoetan zituela, eta orain zuen begirada galetsi eta errukitsu berberekin.»	98
ganibet kutxiloa, aiztoa, ebakitzeko tresna	«—Eta zer? Zuek ganibet batekin konpontzen zarete, ez, motel?...»	85
ganorabako ardurabakoa, alproja	«Nekatuegi nengoen, neure buruari zikoitz ganorabako bat bezala portatzen ari nintzela esateko.»	63
garrasi egin oihu larria, minezkoa	«Hirurok lurrera erori ginen arnasestuka, mekauenka eta ukabilkada. Norbaitek ostikoz jo ninduen saihetsetan, eta garrasi egin nuen.»	140
goragale 'bota egiteko gogo, oka egiteko	«...urdailean goragalea bezalako zerbait sentitzen nuen, eta ez zen gaixorik egoteagatik.»	124
gorroto ikusiezina	«Nahiago dut norbaiten gorrotoa izatea bere errukia izatea baino.»	
halda-maldaka zabuka, aldaroka, ez artez	«Bost soc ziren eta guregana zetozen. Egiten zituzten halda-maldak ikusita, ondo aitzurtuta zetzela pentsatu nuen.»	57
harroputz puztua, oilartua	«Mutil urduria, izaera berokoa, harroputza eta beldurtia, era berean.»	
hautsi apurtu	«Itxura gogorra eta gaiztoa zeukan, sudurra bi aldiz hautsi zioten. Irribarre gogor eta garratza zuen, Dally-k bezala.»	139
higuigarri antojugarria, nazkagarria	«Nahi dugunean, itxurarik higuigarriena hartzen dugu.»	49
hileta hildakoen elizkizuna	«...aitaren eta amaren hileta izan zen eguneko gauean, amesgaiztoa izan nuen.»	109
hizketaldi solasaldia, berbaldia	«Medikua ere bazegoen, eta epaiketa hasi aurretik, hizketaldi luzea izan zuen epailearekin.»	
igurtzi laztandu edo ferekatu bezala	«Ilea igurtzi zidan, eta malkoei eutsi nahian, zotina ateratzen zitzaiola sumatu nuen.»	98
ihintz garioa, goizeko landare ur tanta	«Ez nekien zertan nenbilen, ihintz artean lurreratu eta busti nintzen arte.»	65



ilunabar ilundea, iluntzea	«Zenbatena apustua, ilunabarrei begira ere egoten zarela?»	44
iruzkin komentarioa	«...umeen gurasoetariko baten iruzkin batek, guregatik izan ez balitz, denak hilko zirela zioen.»	106
iskanbila zalaparta, ausiabantza	«Beste zaldiei ostikoka eta beti iskanbiletan sartuta ibiltzen zen.»	43
islatu erreflejatu, adierazi	«Aurpegia zurbil zeukan eta, begira ari zitzaidan bitartean, begiak zabal-zabalik zeuzkan, samina islatzen zuten.»	
itzulipurdi txiribuelta, airean buelta	«Burus behera jarri eta ibiltzen hasi zen, eta gero, eskuak erabili gabe Darryrena baino itzulipurdi handiago bat egin zuen.»	132
jipoi astindua, kolpe pilo	«...aitak jipoia eman izan zion balio behin baino izan ez balitz ere, agian oraindik bizirik egongo litzateke.»	114
kirru kiribildua (rizo)	«...ile gaztain iluna du eta bekokian kirru bat, eta kokotean beste bat txikiagoa...»	12
kliskatu itxi-ireki keinua	«...Johnny-ren txupa gainetik kendu nuen nolabait, eta begiak kliskatu nituen...»	70
kokot lepo gaina, buruaren atzealdean	«...ile gaztain iluna du eta bekokian kirru bat, eta kokotean beste bat txikiagoa...»	12
konortea galdu zentzua galdu	«...baina bat-batean arnasa moztu zitzaion, burkoa baino zuriago jarri zen eta konortea galdu zuen.»	120
labana nabaja, aizto mota	«...bizarra kentzeko labana bezain zorrotz gordetzen zuen.»	123
lain adina, hainbat	«Gu, ordea, sofistikatuagoak gara, hotzak erabat, ezer ez sentitzera heltzeko lain .»	41
lanbro lainoa eta euri fina, zirimiria	«Ia erabakita neukan, kanpoko mundua amets baten parte baino ez zela, eta litxarrerien bokatak (...) eta haraneko lanbroa zirela egiazko gauza bakarrak.»	81
latz lakarra, leuntasunik gabea	«...sikua edo latza da eta ez du ia inoiz irribarre egiten.»	8
lehenbizikoz aurrenekoz	«Zoo-ra lehenbizikoz joan nintzenekoa.»	
leial fidatzekoa, zintzoa	«...zure mailakoekin traidorea izan zara eta ez zara leiala gurekin.»	126
litxarrerria gozokiak oro har, txibizkeriak	«Astebeterako litxarrerriak : bi ogi, pospolo-kaxa bat...»	72
lurperatu enterratu, hobiratu	«...hiltzen badute edo, lurperatzen ardurarik gabe...»	34
madarikazio biraoa, hitz gorria	«Oraingoan, Dally izan zen harrituta geratu zena. Gero, zenbait madarikazio bota zituen.»	87
makulu muleta, ibiltzeko makila	«...ezingo dut inoiz berriro oinez egin ezta makuluekin ere.»	119
marmarka ahapeka, xuxurlaka	«—Nola arraio jakingo dut nik larri dagoen ala ez? (...) eta polizia bere kotxera itzultzearekin batera, Dally-k zera esan zion marmarka : pepelerdo.»	142
marroi arazoa, lazka	«Jasan dezakegun marroirik txarrena hilketa bat da.»	67
mekauenka biraoka	«Hirurok lurrera erori ginen arnasestuka, mekauenka eta ukabilkada. Norbaitek ostikoz jo ninduen saihetsetan, eta garrasi egin nuen.»	140
mingots gozogabe, saminez, disgustura	«Zuk eta Soda-k hirian zegoen ilerik ederrena zeneukaten. —Badakit —esan nuen mingots —.»	84
mintzatu hitz egin, berba egin, solastu	«...ez dut uste hauek arabieraz mintzatzen direnik.»	33



mirestuta harrituta, mira eginda	«... mirestuta begiratu nion.»	34
nabarmendu gailendu, destakatu	«...goztoa eta lagunkoia, besteen gainetik nabarmentzen zen.»	
nonbait antza denez, agi denez	«Epaileak Darry ez dela zaindari ona edo horrelako zerbait erabakitzen badu, nonbait erreformategi batean edo sartuko naute.»	
noski jakina	« Noski , horren ozenki hitz eginda, ez duzu bozgorailurik behar txo –esan zuen Soda-k, eta Darry-ren atzean jarrita, mihia atera zion.»	134
oihuka garrasika	«Spoda-k ate-hotsa atera zuen eta, oihuka , postari buruz galdetu zuen.»	
orban ebakiondoa, zikatriza	«...oraindik orbana daukat atzamar batean. Curly hiri erdiko Hood arrunta zen, gogorra eta ez oso aparta, baina gustokoa nuen.»	131
orbel hosto ihartuen multzoa	«...kanpoko zuhaitzen orbel artean...»	70
orro zarata ozena	«...haizearen orroa entzuten nuen bitartean.»	70
orroka aritu oihu latza eta indartsua egitea	«Steve makurtuta zegoen eta orroka ari zen nigandik hamar bat metrora. Geroago, hiru saihets apurto zituela ikusi genuen.»	141
orube eraikitzeke lur eremua, lursaila	«...gure kaleko ertz batean orube zabal eta ireki bat dago.»	36
ospa egin ihes egin, alde egin	« Ospa egiteko gogoia eman zidan, txo.»	
papar bularraldea	«Besoetatik eta hanketatik heldu zidaten eta haietako bat papar gainean jarri zitzaidan...»	11
pasma polizia	«Entzun pasma agertzen bada –esan zion Darry-k Two-Bit-i, kalean behera gindoazela–, Soda-k, Ponyboy-k eta zuk ospa egin behar duzue berehala.»	133
pepelerdo lerdo, ergela (gilipollas)	«—Nola arraio jakingo dut nik larri dagoen ala ez? (...) eta polizia bere kotxera itzultzearekin batera, Dally-k zera esan zion marmarka: pepelerdo .»	142
pipa pistola	«Bizikleta-kateak, labanak, apurtutako botilak, hodi zatiak, beisboleko bateak, eta batzuetan pipak ere bai.»	136
poltsiko patrika, sakela	«Darry-k ukabilak estutu zituen poltsikoen barruan.»	12
primeran egon ederto egon, erakargarri	«Dally betikoa zen, gaiztoa eta tematia. Primeran zegoen .»	121
sabelalde bularraren behealdea	«Darry-k kamiseta beltz estu bat jantzi zuen. Papparreko giharra multzoa eta sabelaldeko giharre lauak nabarmentzen zitzaizkion.»	129
samin atsekabea	«Aurpegia zurbil zeukan eta, begira ari zitzaidan bitartean, begiak zabal-zabalik zeuzkan, samina islatzen zuten.»	
sasoi garaia, denbora	« Sasoi batean, horrela disfrutatzen zuen munduko pertsona bakarra nintzela pentsatu izan nuen.»	8
sentibera sentikorra	«Johnnycake-ren begiak beldurtiak eta sentiberak ziren.»	120
sofistikatu konplexua eta fina	«Gu, ordea, sofistikatuagoak gara, hotzak erabat, ezer ez sentitzera heltzeko lain.»	41
sumatu nabaritu, igarri	«Ilea igurtzi zidan, eta malkoei eutsi nahian, zotina ateratzen zitzaiola sumatu nuen.»	98
tankerako modukoa, gisakoa	«...baina ez gara soc-en tankerakoak , greaser-ak erasotzen eta garagardo poteak hartuta...»	8
tatarrez arrastaka, dandarrez	«Eta, mesedez, orraztu zaitez eta ez itzazu oinak tatarrez ibili, gaizkilea bazina bezala.»	66



teila teilatuetako pieza	«...ostera teila pilo bat baino gehiago jasotzen baduzu, Soda-k eta biok larrua kenduko dizugu.»	111
temati setatia, egoskorra	«“Mickey Mouse”k urre ilun koloreko ilea zuen, zaldi lotsagabea eta tematia zen, txikoa baino apur bat handiagoa.»	43
traidore lagunak saltzen dituen	«...zure mailakoekin traidorea izan zara eta ez zara leiala gurekin.»	126
txilio garrasia	«... txilioka esnatzen nintzen, zoroak emanda banengo bezala.»	109
txinparta txispak botatzen, diz-diz	«...bagenekien begiak txinpartaka hasten zitzaizkionean halako umorea zuenean, hobe zela dally-ri ezer ez esatea.»	123
txistu listua, ttua	« Txistua irentsi nuen eta begiak kliskatu nituen.»	
txo aizu (<i>tío</i>)	« Ospa egiteko gogoia eman zidan, txo.»	
txupa larruzko txamarra	«...Johnny-ren txupa gainetik kendu nuen nolabait, eta begiak kliskatu nituen...»	70
uhak larruzko hedea	«...eskiatzeko txamarraren uhalak estutu zituen.»	125
ukabil esku itxia	«Darry-k ukabilak estutu zituen poltsikoen barruan.»	12
ulu oihu luzea (otsoena)	«Orduan, denok jota geratu ginen. Ahul-ahul, norbait uluka entzun zitekeen.»	92
xerlo txima, adats sorta	«...gominarik erabiltzen ez zuenez gero, xerloak zituen bekokian eta trentza antzekoak atzean eta...»	16
zaindari begiralea, guardia	«Epaileak Darry ez dela zaindari ona edo horrelako zerbait erabakitzen badu, nonbait erreformategi batean edo sartuko naute.»	
zeihar trabeska bezala, ez artez	«...idazkera okerrezz lurrean idatzita zegoen zerbait ikusi nuen zeiharka .»	71
zikoitz zekena, miserablea	«Nekatuegi nengoen, neure buruari zikoitz ganorabako bat bezala portatzen ari nintzela esateko.»	63
zirkinik egin ez mugitu gabe	«Beraz, bertan gelditu nintzen, zirkinik egin gabe ...»	10
zizpuru hasperena	«...akojono apur bat baino ez da, zizpuru dardaratsu bat bota nuen eta negarrari utzi nion.»	13
zoroak emanda egon burutik egon erotuta	«...txilioka esnatzen nintzen, zoroak emanda banengo bezala.»	109
zotin intziritxoa, maina	«Hileta etorri zitzaidan burura. Nik negar zotinak atera nituen, gogoz kontra bazen ere.»	98
zurbil kolore gabe, margul, zuri	«Begiratzeko beldurra nuen, baina aurpegia ez zeukala erreta ikusteak lasaitu egin ninduen. Zurbil eta geldirik zegoen...»	96